

GURE BALIABIDEAK ESKURA

Arabako Foru Aldundiak Lanabeseko talde eragilearen bidez Arabako entitateei zuzenduriko baliabideak eskaintzen ditu, euskararen erabilera areagotzeko prozesua erraztea helburu. Las entidades de Álava disponen de una amplia oferta de recursos para fomentar el euskara y agilizar el proceso.



EUSKARABA

<https://euskaraba.eus/zerbitzu-katalogoa/>
Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuak katalogo bat eskaintzen du bere produktuen zabalkunde egiteko eta eskura jartzeko, gizartea eta euskara balioesteko daukan kudeaketa eredu oinarriturik. El Servicio Foral de Álava presenta un catálogo para ofrecer sus productos, partiendo de un modelo de gestión basado en el valor de la ciudadanía y el euskara.



EUSKO JAURLARITZAREN LANHITZEN BALIABIDEAK

<http://www.euskara.euskadi.eus/r59-11477/eu/>
Entitate pribatuei zuzenduriko diru-laguntzak, finantza-etxeen neurgailua, telefonia euskaraz konfiguratzeko laguntza eta esparru sozioekonomikoak ohikoak diren agiriak euskaraz egiteko ereduak eskaintzen ditu Eusko Jaurlaritzak. El Gobierno Vasco ofrece información sobre ayudas económicas, facilidades para configurar el teléfono en euskara y plantillas de documentación común en el ámbito socioeconómico.



LANEKIREN BALIABIDEAK

<https://jakinbai.eus/>
Lanbide Heziketarako euskarazko materiala eskaintzen du Jakinbaik. Sektore anitzeko online hiztegi tekniko, ikasketetara bideraturiko dokumentazioa, etab. Jakinbai ofrece material de Formación Profesional en euskara. Diccionarios técnicos de diferentes sectores, documentación para la formación, etc.



BAI EUSKARARI ELKARTEAREN BALIABIDEAK

<https://www.baieuskarari.eus/eu/baliabideak>
Bai Euskarari Elkarateak euskara entitatean txertatzen laguntzeko tresnak eta laguntza eskaintzen ditu: diru-laguntza deialdien inguruko informazioa, hizkuntza gaitasuna lantzeko aukerak, irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia euskaraz garatzeko ereduak... Bai Euskarari ofrece facilidades y recursos para integrar el euskara en las entidades. Desde información sobre ayudas económicas, hasta herramientas para mejorar la capacitación lingüística de las personas, y diversos recursos comunicativos.

LIDERGOA, ELKARLANA ETA ENERGIA POSITIBOA


Izaera publikoa zein pribatua, enpresak zein elkarateak... guztiak ere helburu bera partekatuz osatu da Lanabes, askotarikoa baina bakarra. Lurraldean euskara balio gehigarri gisa txertatzen laguntzeko jaio zen Arabako Foru Aldundiaren babespean. Elkarri aitortuz bakoitzak duen garrantzia, elkar babesten, osagarritasuna bilatzen eta guztion arteko elkarlana bideratzen. El trabajo en equipo, liderazgo y energía positiva son las claves del proyecto. Un grupo formado por entidades muy variadas con un único objetivo: aportar valor con el euskara.



PILAR GARCÍA DE SALAZAR
ARABAKO FORU ALDUNDIKO
DIPUTATU NAGUSIORDEA

"Gure enpresak lehiakorrek dira, izan daitezela lehiakorrek egiten duten hizkuntza kudeaketan ere. Berrikuntzaz ari gara, balio erantsiaz ari gara, bizikidetzaz ari gara, aukera berdintasunaz ari gara, eredugarritasunaz ari gara, lankidetzaz ari gara".

"Contamos con empresas competitivas; que lo sean también en la gestión del idioma. Hablamos de innovación, de valor añadido, convivencia, igualdad, ejemplaridad y cooperación".



IGONE MARTÍNEZ DE LUNA
ARABAKO FORU ALDUNDIKO
EUSKARA KULTURA ETA KIROL
SAILEKO FORU DIPUTATUA

"Gizartearen bilakaerari erantzuteaz ari gara. Gero eta herritar elebidun gehiago dituen herriak euskaraz aitzeko aukerak bermatu behar ditu, edozein delarik ere esparrua".

"Es cuestión de responder a la evolución de la sociedad. Un territorio cada vez más bilingüe necesita espacios para hablar en euskara".



AITOR OTAOLA
SEAKO ZUZENDARI
ORDEA

"Lan-arloan ere nabarmendu egin behar da hizkuntzaren egoera, eta horixe da lortu nahi duguna; zeregin horretan, enpresak eurek hartu behar dute erabakia beren borondatez, eta enpresetako jendeak ere horrela nahi izanda hartu behar du parte".

"Trabajamos para fomentar la lengua en el ámbito laboral. Las empresas deben tomar la iniciativa y participar de forma voluntaria".



ROBER GUTIÉRREZ
BAI EUSKARARI ELKARTEKO
ZUZENDARIA

"Arabako euskaraz lan egitea, ekitea, sortzea, berritzea, saltzea eta erostea, egunerokoan euskaraz normaltasun osoz aritzea posible bada, arabarron ongizatea zinez handiagoa izango da".

"El bienestar de los alaveses será mayor si conseguimos trabajar, emprender, vender, comprar y vivir con normalidad en euskara".



LANABES
ARABAN EUSKARA LANEAN

Arabako euskaraz bizi eta euskaraz lan egin nahi duten pertsonak helburu.

lanabes.eus

info@lanabes.eus



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

AFAK sustatutako proiektua



LANABES
ARABAN EUSKARA LANEAN

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

lanabes.eus



ARABAN EUSKARA LANEAN

Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea, sustatzea eta bitartekoak zein ereduak eskaintzea dira Lanabes egitasmoaren helburu nagusiak. *Lanabes trabaja para fomentar la presencia del euskara en el ámbito socioeconómico de Álava, ofreciendo recursos y facilidades.*

ABIAPUNTUA

Abiapuntua Lazarraga Sarien 2014ko edizioan kokatu behar da, bi urtez behin Arabako Lurralde Historikoan arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia areagotzeko norbanakoek zein entitateek egindako lana aitortzea helburu duen sariketa ekitaldian. Zenbait epaimahaikideren eta sarituren arteko solasaldi baten ondoren sortu zen egitasmoa garatzeko ideia. *La idea de Lanabes surge gracias a una conversación entre algunos premiados y miembros del tribunal de los premios Lazarraga, un reconocimiento a las personas y entidades que trabajan por fomentar el euskara en el Territorio Histórico de Álava.*

ARABAN, EUSKARA HELBURU

2015eko irailaren 23an egin zen "Arabian Euskara Lanean" izeneko hausnarketa saioa, euskaraz lanean ari diren 30 erakunderen proiektuak, premiak eta balorazioak jasotzeko. Alor sozioekonomikoan euskaraz txertatzeko bidean, hiru urtera begirako plan proposamena adostu zen, hiru ildo nagusi hauekin oinarriturik: *Desde su comienzo, se acordó un plan para tres años, con las siguientes líneas estratégicas:*

- "Arabian Euskara Lanean" ekimena gidatu duen taldeari segimendua eta zabalkunde ematea. *Dar continuidad y visibilidad al grupo que ha liderado el proyecto.*
- Arabako sektore sozioekonomikoa euskararen erabileraz sentsibilizatzea. *Sensibilizar el sector socioeconómico de Álava con el fin de fomentar el uso del euskera.*
- Era guztietako entitateak eta pertsonak inplikatzeko, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzeko. *Implicar a todo tipo de entidades y personas, con el objetivo de aumentar la presencia del euskera en el ámbito socioeconómico alavés.*

ARABAKO ENPRESEN BEGIETATIK

Arabian gero eta enpresa gehiago ari da euskara euren eguneroko kudeaketan barneratzen, bezeroekiko zein hornitzaileekiko harremanetan erabiltzen, hizkuntza paisaian, barrura eta kanpora begira. Arabako erakunde eta enpresa asko ere jauzia egiten ari dira, euskara gero eta espazio handiagoa betetzen ari da.

La presencia e impulso del euskara es cada vez más fuerte en Álava. Cada vez son más las empresas que, conscientes del valor añadido que ofrece la lengua, deciden integrarlo en su gestión diaria, en la relación con los proveedores y en sus comunicaciones. Aldaketak ari dira ematen eta, pixkanaka bada ere, euskara sustatzearen eta erabiltzearen onurez ari dira jabetzen enpresak, merkataritza eta ostalari-tzako establezimenduak eta bestelako entitateak. Hor daude, esate baterako euskara plana duten edo Bai Euskarari Ziurtagiria zein Bikain agiria duten enpresak.

Bikain www.euskalit.net/bikain/eus/reconocimientos.php?id=2

Bai Euskarari www.baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak



ADIGRAFIK BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA "ZERBITZUA EUSKARAZ". LAZARRAGA SARIAK 2016
"Aurrerapausoak egon dira azken urteotan. Argi dago Araba herrialde konplexua dela, ora har, egunerokotasunean inguruko jendearekin euskaraz aritzea falta da, baina, pixkanaka jendea hasi da lehenengo hitza euskaraz egiten. Gure kasuan, bezeroek badakite Adigrafik-en bulegoan telefonoz lehenengo hitza euskaraz entzungo dutela eta, orduan, lehenengo hitza behintzat euskaraz egiten ahalegintzen dira. Euskara balio erantsia da guretzat".



AGIRRE LEKUE FARMAZIA BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA "ZERBITZUA EUSKARAZ". LAZARRAGA SARIAK 2014
"Edozein ezagutza da gehigarria, batez ere Gasteiz bezalako hiri batean, non bi hizkuntza ofizialen bizikidetzaren presentzia dagoen. Bide horretan, guretzat beharrezkoa da zerbitzua euskaraz eta gaztelaz emateko gai izatea. Bezeroak asko eskertzen du zein hizkuntzetan hitz egin nahi duen hautatzea eta farmaziako langileok egokitzeko".



ELECTRA VITORIA LAZARRAGA SARIAK 2014
"Gasteizen errotuta gauden heinean betidanik egin dugu ibilbidea euskaraz. Euskarak komunikazio bide bat ematen digu, bai langile eta bazkideen artean eta baita gure bezeroekiko ere. Geroz eta gazte gehiago dator euskaraz eta guretzat garrantzitsua da euskarazko komunitatea handitzea".



EGAMASTER BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA "BIDEAN". LAZARRAGA SARIAK 2014
"Oso garrantzitsua da bezeroari ahal den heinean zerbitzua bere hizkuntzan eskaintzea; gertutasun eta konfiantza maila altuagoa lortzen baita. Guretzat euskara garrantzitsua da gure hizkuntza delako eta maite dugulako, eta bestetik, gure enpresa langileekiko erakargarri egiten duelako. Arabian ez da erraza euskaraz lan egin dezakeen enpresa bat topatzea; hala ere, gure enpresan lortu dugu euskararen bidez erakargarriagoak izatea eta normaltasun osoz euskaraz lan egitea".

ABIAN DITUGUN PROIEKTUAK

Etorkizuna euskaraz irudikatzen du Lanabesek eta marko horretara iristeko hainbat egitasmo abiatu ditu. *Proyectos puestos en marcha por Lanabes.*



ENPRESEN TOPAKETA

<https://lanabes.eus/world-kafea/>
Arabian Euskara Lanean ekimenaren lehen topaketa egin zen 2015eko irailaren 23an, Gasteizen. Arabako 30 enpresa elkartu ziren world coffee-an euskaraz lanean duen egoeraren azterketa partekatu eta euskaraz lanean ari diren erakundeen praktikak, premiak eta balorazioak jasotzeko. *El primer encuentro del proyecto fue el 23 de septiembre de 2015; 30 empresas y entidades compartieron sus análisis, visiones y retos de la lengua vasca en el ámbito socioeconómico.*

LANPRES ETA LANENPRES GIDA

<https://lanabes.eus/lanenpres-gidaren-aurkezpen-ekitaldia-urriaren-Sean/>
LanENpres, Ikasleak enpresa egonaldia euskaraz egin ahal izateko balabideak eta horiek erabiltzeko prozedura biltzen dituen gida da, enpresa eta ikastetxei zuzendua. *Guía dirigida tanto a los centros educativos como a las propias empresas para facilitar que las prácticas sean en euskera.*

SUSTAPEN KANPAINAK - ARABAN BAI

<https://lanabes.eus/araban-bai-merkataritza-ostalari-tzari-euskarari-kanpainaren-aurkezpena/>
Arabako Foru Aldundiak eta AENKOMER - Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresarien Elkarteak "Arabian Bai" kanpaina abiatu dute, merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera bultzatzeko; Araban merkataritza, ostalaritza eta euskarari, BAI esanez. Izan ere, euskara maila, motibazioa, denbora edo-eta balabideak ezberdinak badira ere, beti dago aukera urrats txiki bat emateko, eta bezero mota berri horiei egokitzeko. *Arabian Bai, campaña promovida por la Diputación Foral de Álava y AENKOMER para impulsar el euskara en el comercio, y la hostelería.*



EUSKARA PILOTAJEAK ENPRESAN

<https://lanabes.eus/enpresetan-euskararen-erabilera-areagotzeko-pilotajea/>
Metodologia ulergarri eta pilotaje erraz eta doako baten bitartez, Lanabesek enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko laguntza eskaintzen du, zerbitzu edo-eta lan hizkuntza izan dadin. *Lanabes ofrece una metodología fácilmente entendible y un pilotaje sencillo y gratuito, que contribuye, sin duda alguna, a incrementar la presencia y el uso del euskara en las empresas.*

PRAKTIKA EGOKIAK

<https://lanabes.eus/baipraktikaegokia-enpresan-euskaraz-ongi-jarduteko/>
Euskaraz lan egin nahi duzu eta ez dakizu nondik hasi? Lanabesek talde eragileak enpresari zuzenduriko jarraibideen gida eskaintzen du, euskararen ibilbidea egin nahi duten enpresa, saltoki eta era guztietako entitateen baliabide gisa. *¿Quieres trabajar en euskara y no sabes por dónde empezar? Lanabes ofrece una guía como recurso para aplicar buenas prácticas en las empresas, comercios y todo tipo de entidades que quieran emprender y desarrollar su camino en euskera.*

LAZARRAGA SARIAK

<https://lanabes.eus/lazarraga-sariak/>
Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Elkarteak 2010etik elkarlanean sortutako eta kudeatutako sariketa. Lazarraga Sarien helburu nagusia da Arabako arlo sozioekonomikoan euskararen alde lan egiten duten entitateak edota pertsonak saritzea eta haien ahalegina aitortzea. Hala, Lazarraga Sarien bidez, Arabako bost entitate eta pertsona saritzen dira euren lan ingurunean euskara txertatzeko aurrera eramandako ekimenengatik. Lanabes egitasmoaren barruan antolatzen da Lazarraga Sarien banaketa, bi urtean behin, 2016tik. *El objetivo de los Premios Lazarraga es reconocer la labor de normalización del euskera que diferentes entidades y personas hayan desarrollado en el ámbito socioeconómico alavés.*

Hauek izan dira orain arteko saridunak:
2010: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, JEZ Sistemas Ferroviarios, Skunk Funk, Launa upategia eta Kepa Mendia.
2012: Cuadrabus, Gometegui, Assa Ikastola, Villa Lucía eta Abel Enbeita.
2014: Besa upategia, Electra Vitoria, Oreka IT, Agirre Lekue farmazia eta Aner Garmendia.
2016: Adigrafik, Etxeko Baratza, Lautada Bizirik, Ciudad Jardín LHII eta Txema Pascual.

